



FOREVER TALDEA

## **FUNTSEZKO SOZIJETATEAK**


Gure proiektuak funtziona dezan, hainbat bazkide beharko ditugu eta hauen eginkizuna honako helburu hauek betetzea izango da: txipa egitea, plastiko birziklatutako fundak egitea, eta aplikazioa sortzea. Ez ditugu hornitzaileak behar.

Lehen aipatu dugun bezala proiektua aurrera eraman ahal izateko garrantzitsuak dira bazkide hauek. Oinarrizko faktoreak dira gure proiektuarentzako.

Txipa egiten dutenak, enpresa jakin batzuekin hitz egingo dute, horrela, txiparen informazioa produktuekin batzea eta aplikazioan azaltzea lortuko dute. Txipak pegatina antzekoak izango dira eta hauek produktu jakinetan erantsiak joango dira.

Bestalde, txipen ekoizpena ez dugu geuk egingo, beste enpresa batek baizik, eta web gunearen kontrola guk izango dugu. Hala ere, esan behar da arazoak konpontzeko zenbait teknikari edukiko ditugula.

## FOREVER TALDEA



Plastiko birziklatutako fundak edo zorroak egiten dituztenak, berriz, funda bereziak sortuko dituzte, mota eta diseinu desberdinak egongo dira. Funden helburu nagusia mugikorrek babestea izango litzateke, baina desberdintasun batekin: fundak birziklatuak izango dira eta horrela, munduan dagoen plastiko kantitate izugarri horri beste erabilpen edo bizi bat emango zaio.

Bestalde, aplikazioa sortzen dutenak, aplikazioa kontrolatuko dute eta ondoren, merkaturatu.

Produktuak, txipak eta fundak gure enpresaren oinarri nagusienak dira, baita sortuko dugun aplikazioa ere. Produktuak eta txipak ez ditugu guk ekoiztuko baizik eta horietan espezializatuta dauden enpresei erosiko dizkiegu.

Fundak egiteaz gu arduratuko gara, geuk bilduko ditugu birziklatutako plastikoak berrerabiltzeko eta bertatik guk ekoiztu behar ditugun fundak aterako ditugu, beraz gu gara ekoizleak. Fundak egiteko prozesua nahiko sinplea da: plastikoa jaso, berotu eta urtu, forma eman eta dekoratu (marraztu)



## FOREVER TALDEA

Aplikazioari dagokionez, guk sortu zein kontrolatuko ditugu, bertatik erosketak egiten direlako eta guri bururatu zaigun produktua delako. Gogorrazteko, aplikazioan fundak egongo dira salgai.

Lehen aipatu dugun bezala YouTubeko kanala eta instagrameko kontuak irekiko ditugu, bertan informazioa gehitzeko eta lagundu ahal izango duten bideoak txertatuko ditugu. Horrela, gure kontsumitzaileekin harreman egokia izango dugu eta beraiek konfiantza hartuko dute gure produktuarengan, beraz, berriro kontsumituko dute geure produktua.